

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 4118

*EBAZPENA, 2024ko ekainaren 20koa, Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordearena, Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatzen duen 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenean detektatutako akatsak zuzentzen dituena.*

### AURREKARIAK

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenaren bidez, Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatu zen.

2022ko maiatzaren 4an, Deydesa 2000 SLk bere baimenaren aldaketa ez-funtsezko hau eskatu zuen: zolataren zati bat konpontzea; baina organo honek aldaketa hori ez-funtsezkoa zela berretsi zuen 2022ko maiatzaren 16an.

2022ko maiatzaren 30ean, Deydesa 2000 SLk bere baimenaren aldaketa ez-funtsezko hau eskatu zuen: lerroetan dagoen banaketa optikorako eta kable-kontzentratuaren tratamendurako makineria ordezkatzea; baina organo honek aldaketa hori ez-funtsezkoa zela berretsi zuen 2022ko ekainaren 21ean.

2022ko irailaren 16an, Deydesa 2000 SLk gora jotzeko errekurtsua jarri zuen Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatzen zen.

2022ko urriaren 10ean, Deydesa 2000 SLk bere baimenaren aldaketa ez-funtsezko hau eskatu zuen: lerro horiko bereizgailu magnetiko aldakorra ordezte; baina organo honek aldaketa hori ez-funtsezkoa zela berretsi zuen 2022ko azaroaren 22an.

2022ko azaroaren 8an, Araba Garapen Agentziak alegazioak aurkeztu zituen Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenaren kontra. Ebazpen horren bidez, Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatzen zen.

2023ko otsailaren 2an, Deydesa 2000 SLk baimen-aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, zolataren zati bat konpondu ahal izateko; baina organo honek aldaketa hori ez-funtsezkoa zela berretsi zuen 2023ko otsailaren 3an.

2023ko otsailaren 17an, Araba Garapen Agentziak eskatu zuen Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenean zenbait gogoeta sartzeko. Ebazpen horren bidez, Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusten eta aldatzen da.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko martxoaren 24ko Aginduaren bidez, baliogabetu egin zen Deydesa 2000 SLk Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuaren 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenaren aurka (Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusten eta aldatzen duena) jarritako gora jotzeko errekurtsua. Bigarren ebazpen-zatian, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeari agintzen zaio 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpena alda dezala, erregistratutako akats materialak zuzentzeko.

2023ko martxoaren 28an, 2023ko otsailaren 17an bidalitako gogoetak zuzentzeko eskatu zuen Araba Garapen Agentziak.

2023ko uztailaren 23an eta 26an, Deydesa 2000 SLk bere baimenaren aldaketa ez-funtsezkoak eskatu zituen: hornidura-armairuan jardutea, Araba Garapen Agentziak egindako eskaerari jarraikiz, eta Deydesa 2000 SLren bulegoen sarrerako balaustra konpontzea, mantentze-premien ondorioz; baina organo honek aldaketa ez-funtsezkotzat jo zituen 2023ko otsailaren 3an.

Sailburuordetza honetako zerbitzu teknikoek Deydesa 2000 SLk aipatutako ebazpenean jakinarazitako akatsak egiaztatu ondoren, akats horiek konpontzea erabaki zuen, eta behar bezala idatzi zituen ebazpen horren lehenengo eta bigarren apartatuak.

2023ko urriaren 2an eta 2024ko urtarrilaren 8an eta 23an, Deydesa 2000 SLk funtsezkoak ez diren zenbait aldaketa eskatu zituen bere baimenean: sortutako hondakin gisa alta ematea 12 01 12\* EHZ hondakinak («argizari eta koipe erabiliak») eta 15 01 02 EHZ hondakinak («plastikozko ontziak»); fluffaren tratamenduan sortutako frakzio arina tratatzeko makinei alta ematea, eta lur-makinari eta ur-biltegiari baja ematea; ekipo mugikor bat instalatzea patinaren dekantazio-lohiak tratatzeko (araztegira sartu aurretik), arazketa-etapa hobetzeko makineria mugikorra; eta «harriak» hondakinaren EHZ aldatzea, 19 12 12 EHZtik 19 12 09 EHZra; baina organo honek 2024ko apirilaren 10ean aldaketa horiek ez-funtsezkotzat berretsi zituen.

2024ko urtarrilaren 8an, Deydesa 2000 SLk bere baimenaren aldaketa ez-funtsezko hau eskatu zuen: eraikin berri bat eraikitzea frakzio ultra-arina tratatzeko; baina organo honek aldaketa hori ez-funtsezkoa zela berretsi zuen 2024ko martxoaren 22an.

2023ko urriaren 24an, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 40. artikulua aplikatuz, ebazpen-proposamena bidali zitzaion Deydesa 2000 SLri, eta hamar eguneko epea eman zitzaion egoki irizten zituen ohar eta alegazioak aurkez zitzan.

2023ko azaroaren 7an, Deydesa 2000 SLk alegazioak aurkeztu zituen, idazki baten bidez. Ebazpen honen eranskinean daude jasota, labur, erakunde honek horiei buruz egindako oharrekin batera.

Era berean, entzunaldian zehar zenbait alegazio erregistratu ondoren, 2024ko apirilaren 9an, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 40.2 artikulua aplikatuz, alegazio horiek helarazi zitzaizkien, ebazpen-proposamenarekin batera, alegazioei dagozkien txostenak egin dituzten organoei.

2024ko maiatzaren 23an, Deydesa 2000 SLk uko egin zion eskatutako aldaketa ez-funtsezkoari, hau da, patinaren dekantazio-lohiak tratatzeko ekipo mugikor bat instalatzeari (araztegira sartu aurretik), arazketa-etapa hobetzeko makineria, eta organo honek onartu egin zuen 2024ko ekainaren 10ean.

2024ko maiatzaren 31n, Deydesa 2000 SLk baimenaren aldaketa ez-funtsezkoa eskatu zuen, fluffaren frakzio ultra-arinaren tratamenduari atxikitako 0100001345-02 fokuari alta emateko.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Ingurumen-organok du ebazpen hau emateko eskumena, bat etorri Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan xedatutakoarekin.

2024ko irailaren 4a, asteazkena

Honako xedapen hauek ikusi dira: abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina; 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, eta aplikatu beharreko gainerako arauak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenean antzemandako akatsak zuzentzea. Ebazpen horren bidez, Deydesa 2000 SLri Legutioko (Araba) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako emandako ingurumen-baimen bateratua berrikusi eta aldatzen da.

Bigarrena.– Ingurumen-baimen bateratua aldatzea eskatzen duten instalazioaren aldaketa ez-funtsezkotzat jotzea Deydesa 2000 SLk Legutioko (Araba) udalerrian hondakin arriskutsuak eta arriskugabeak kudeatzeko jarduerarako.

Hirugarrena.– Aldatzea Deydesa 2000 SLri Legution hondakinak kudeatzeko emandako ingurumen-baimen bateratua, lehen aldiz 2015eko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez emana, eta, ildo horretan, lehenengo, bigarren eta laugarren apartatuak aldatzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen I. eranskinean zehaztutako eran, aipatzen ari garen ingurumen-baimen bateratuaren lehenengo eta bigarren apartatuak aldatzea.

Bosgarrena.– Ingurumen-baimen bateratu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.– Ebazpen honen berri ematea Deydesa 2000 SLri.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau Legutioko Udalari, Araba Garapen Agentziari, Urrunagako Administrazio Batzarrari eta Goian Administrazio Batzarrari jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondoreak izan ditzan, hau da, beste lizentzia, baimen, erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio batzuk lortu ahal izatea.

#### ERREKURTSOAK

Egintza honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 20a.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,  
AITOR ALDASORO ITURBE.

## I. ERANSKINA

Ingurumen-baimen bateratuaren apartatu hauek aldatu dira, Deydesa 2000 SL enpresak Legution hondakin arriskutsuen eta arriskugabeen kudeaketari dagokionez jakinarazitako aldaketa-proiektura egokitzeko. Honela idatzita geratuko da:

«Lehenengoa.– Deydesa 2000 SLri (egoitza soziala: San Antolin kalea 6.C, Goian industrialdea, Legutioko udalerrria; IFK: B-01267004) Legutioko udalerrian hondakinen kudeaketarako instalazio bat jartzeko ingurumen-baimen bateratua ematea, ebazpen honen bigarren apartatuan zehaztutako baldintzen arabera.

Jarduera abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena) 1. eranskineko kategoria honetan dago sartuta:

«5.4 Hondakin arriskugabeen balorizazioa, edo balorizazioaren eta ezabatzearen nahasketa, instalazioek egunean 75 tonatik gorako ahalmena badute eta honako jarduera hauetako bat edo gehiago biltzen badute, Hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikatu beharreko arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege Dekretuan jasotakoak izan ezik:

d) Hondakin metalikoak birringailuetan tratatzea, barnean direla hondakin elektrikoak eta elektronikoak eta bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak eta horien osagarriak».

Instalazioaren azalera 39.767 m<sup>2</sup>-koa da eta horietatik 5.314,6 m<sup>2</sup> okupatuta daude; bertan daude instalazioak dauzkan pabiloiak, ekipoak, biltegiak eta bulegoak.

Instalazioan hondakin arriskugabeak eta deskontaminatutako frakzio arriskugabeak balorizatzen dira, pabiloi estalietan kokatutako zenbait unitate modularren bidez. Kokapen honi esker, hondakin bakoitzerako prozesatze-zirkuitua diseina daiteke, eta, ondorioz, ahalik eta gehiena berreskuratu eta prozesuaren kostua ahalik eta gehiena txikiagotzen da.

Tratamendurako ondoz ondoko zenbait prozesu daude, eta aldatu egiten dira prozesatu behar diren hondakinen ezaugarrien arabera. Deydesa 2000 SLk prozesatze-probak erabili ohi ditu aplikatu beharreko eragiketak eta horien ordena zehazteko (R0403 kudeaketa-eragiketa), eta horretarako lerro espezifiko bat dago (proba-lerroa).

Etapak hauek daude:

– Trommela eta diskoak bahetzeko etapa (altzairugintzako baheketa-lerroa).

– Sailkapen granulometrikoa, sartzen diren materialak granulometria desberdineko hiru korrontetan banatzeko; horietariko bakoitza berreskuratze-zirkuitu espezifiko batera igaroko da zirkuitu bakoitza bere korrontearen arabera egokituta baitago. Goi-intentsitateko banaketa magnetiko aldakorren etapa, aluminioa zehatz kentzeko. Kobrearen bereizketa elektropneumatikoa (Fluff lerroa).

– Trommela eta material fin hezeak tratatzeko bereizgailu balistikoa (lerro balistikoa).

– Frakzio handiak bereiztea (iparraldeko trommela).

– Sailkapen granulometrikoko ekipoak, bereizgailu magnetikoak, hondakin astunak tratatzeko bereizgailu magnetiko aldakorrak (erdiko lerroa).

– Dentsitate kontrolatuko bereizketa dentsimetrikoko bi etapa (flotazio integratua eta aluminioaren flotazioa). Lehenengoaren kasuan, efluenta instalazioko ur-tratamenduan bertan tratatzen da eta, bigarrenaren kasuan, horren ondoren, instalazioko arazketa fasean.

– Goi-maiztasuneko imana, herdoilgaitza bereizteko, eta aire-labana (Wagner-Nihot).

– Granulometria desberdineko metalezko frakzio ez-ferrikoak (indukzio handia, lerro laranja, lerro horia) tratatzeko eta kontzentratzeko indukzio bidezko hainbat bereizketa, konpresore bidez eragindako eiekzio pneumatikoekin.

– Zig-zag makina, Fluffaren tratamenduan sortutako frakzio arina tratatzeko.

Unitate modular horiek elikatzeke, pala kargatzaileak erabiltzen dira. Ondoz ondoko eragiketa horien bidez, metalak ferrikoa izatearen edo ez izatearen arabera banatzen dira, eta horrela zuzentzen dira, banatu ondoren, galdaketan eta finketan jarduten duten enpresa espezializatueta.

Deydesak honako prozesu osagarri hauek egiten ditu:

– Zolan eta estalkietan jasotako euri-urak eta banaketa dentsimetriko hezeko hiru eragiketetatik sortutako efluenteak instalazioan jaso eta araztegira bideratzen dira; tratamendu fisiko-kimikoaren etapa batean, ekarritako ur horiei kutsadura kentzen zaie, industrialdeko kolektorera isuri aurretik. Tratamendu-instalazio horretan, kaltzio hidroxidoa, kloruro ferrikoa eta azido klorhidrikoa dosifikatzeko sistema dago. Horrez gain, arazteko instalazioak prentsa-iragazki bat dauka, tratatutako solido esekien prezipitazioaren ondoren sortutako solidoen eraginez geratutako uraren zati bat ezabatzeke. Solidoak bereizi ondoren, prentsa-iragazki batera igarotzen dira, solidoen ur-edukia murrizteke. Hondakin erdi-solido bat sortzen da, solido prentsatuena. Kokatuta dagoen industrialdean urak biltzeko eta tratatzeko duten sistemara isurtzen da efluentea.

– Aire konprimatuko eta elektrizitateko instalazioak, goi-tentsiokoak eta behe-tentsiokoak.

Deydesa 2000 SLren urteko gutxi gorabeherako energia-kontsumoa, hondakinak tratatzeko, 1.722 kWh energia elektrikokoa da.

Sortutako hondakin arriskutsuak zein arriskugabeak enpresako ekoizpen-prozesuetatik datoz, nagusiki.

Deydesa 2000 SLren jardueran, Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko 2018/1147 Betearazpen Erabakian (EB) jasotzen diren teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira, hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituen, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera: 1. TEO, 2. TEO, 3. TEO, 4. TEO, 5. TEO, 6. TEO, 7. TEO, 8. TEO, 11. TEO, 14. TEO, 18. TEO, 19. TEO, 20. TEO, 21. TEO, 25. TEO, 26. TEO eta 27. TEO».

«Bigarrena.– Dydesa 2000 SL enpresak Legutio udalerrian (Araba) sustatzen duen hondakin arriskugabeak kudeatzeko jarduera ustiatzeko, honako baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru.

Gutxienez seiehun mila (600.000) euroko erantzukizun zibileko aseguru bat eratu beharko da, honako hauek estaliko dituen: hirugarren pertsoneri edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatik kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatzen den ingurumena konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen (KPI) arabera igota.

B) Ingurumen-arloko erantzukizuna.

Deydesa 2000 SL 3. lehentasun-mailako operadore gisa dago sailkatuta ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren arabera. Agindu horren bidez ezartzen da, hain zuzen ere, Ingurumen

Erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean xedatzen diren eta urriaren 23ko APM/1040/2017 Aginduak aldatzen duen ministerio-aginduak onartzeko lehentasun-ordena eta egutegia.

Deydesa 2000 SLk bere jarduera profesionalaren ingurumen-arriskuen azterketa egin beharko du, 2090/2008 Errege Dekretuaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera (abenduarien 22koa, Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legea hein batean garatzeko araudia onartzen duena). Artikulu horren hirugarren apartatuaren arabera, operadoreak ingurumen-arriskuen analisia eguneratuko du egokitzat jotzen duen guztietan, eta jardueran, instalazioan edo baimenean funtsezko aldaketak egiten direnean.

Finantza-bermea eratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio agintaritza eskudunari, eta adierazpen horrek 2090/2008 Errege Dekretuaren IV.1 eranskinean adierazitako informazioa jaso beharko du gutxienez. 26/2007 Legearen 28. artikuluko a) eta b) apartatuetan adierazitako salbuespenei jarraikiz jarduera finantza-bermea eratzetik salbuetsita badago, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio agintaritza eskudunari; adierazpen horretan, IV.2 eranskinean adierazitako informazioa jasoko da gutxienez.

Jardueraren operadoreak ingurumen-kalteak prebenitzeko, saihesteko eta konpontzeko neurriak hartu eta betearazi behar ditu, eta horien kostuak ordaindu behar ditu, zenbatekoa edozein dela ere, baita dolorik, errurik edo zabarkeriarik ez bada ere, Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legearen 19.1 artikuluan adierazten den bezala.

C) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunaren gainean eman dizkion datuetan aldaketarik balego, aldaketa horien berri emango dio Deydesa 2000 SLk Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari.

D) Babes- eta zuzenketa-neurriak.

Babes- eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan adierazi bezala beteko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta honako apartatu hauetan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak hartu, manipulatu eta biltegitratzeko baldintzak eta kontrolak.

Deydesa 2000 SLk hondakin arriskugabeak balorizatuko ditu eragiketa hauen bidez: R0403 (hondakin metalikoak birziklatzea txatarra lortzeko) eta R1302 (hondakinak biltegitratzea, tratamenduaren eremuan).

Instalazioan balorizazioa egiteko onargarriak diren hondakinak hurrengo apartatuetan daude zehaztuta, horiek behar bezala kudeatzeko zehaztapenekin batera.

Instalazioan tratatu beharrekotzat jotzen diren hondakinen jatorri bakoitzeko, operadoreak dagokion tratamendu-kontratua igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, eta kontratu horretan, hala badagokio, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da.

Hondakin jakin bat onar daitekeela egiaztatu ondoren, Deydesa 2000 SLk dokumentu horren titularrari onarpena ziurtatzen duen agiria igorriko dio, onarpen horren baldintzak ezarrita.

D.1.1.– Hondakin onargarriak.

A) Hondakin arriskugabeen eta deskontaminatutako frakzio arriskugabeen balorizazioa (San Antolin kalea 6).

Jarduera hori honetan datza: hondakin solido konplexu arriskugabeak eta deskontaminatuak jasotzea, biltegitratzea eta bahetu eta hautatzeko prozesu bat egitea (bereizketa dentsimetrikoa eta magnetikoa), baita biltegitratzea eta beste instalazio batzuetara bidaltzea ere.

- Tratamendu-ahalmena (R0403): 90.000 tona urtean.
- Tratamenduaren zain egoteko biltegitratze-ahalmena (R1302): 140.000 tona urtean.

Deydesa 2000 SLk Europako Hondakinen Zerrendako hondakin arriskugabeak tratatu ahal izango ditu. Zerrenda hori Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (erabaki horren bidez aldatu egin zen 2000/532/EE Erabakia, hondakinen zerrendari buruzkoa):

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
10 02 01	Zepak tratatzearen ondoriozko hondakinak
10 02 02	Tratatu gabeko zepak
10 02 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak
10 09 03	Labeko zepak
10 09 06	Isurketa-hondarrak ez duten galdaketa-arrak eta moldeak, 10 09 05 kodean zehazten ez direnak
10 09 08	Isurketa-hondarrak dituzten galdaketa-arrak eta -moldeak, 10 09 07 kodean zehazten ez direnak
10 09 10	Gas-efluenteetako partikulak, 10 09 09 kodean zehazten ez direnak
10 09 12	Bestelako partikulak, 10 09 11 kodean zehazten ez direnak
10 09 99	Beste kategorietan zehazten ez diren hondakinak
12 01 01	Burdin metalen karraka-hautsak eta txirbilak
12 01 03	Metal ez-burdinazkoen karraka-hautsak eta txirbilak
12 01 17	Granailaketako edo zurrustako hondakinak, 12 01 16 kodean zehazten ez direnak
15 01 04	Metalezko ontziak
15 01 05	Ontzi konposatuak
15 01 06	Ontzi nahasiak
16 01 06	Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuak, likidorik edo beste osagai arriskutsurik ez daukatena
16 01 17	Metal ferrosoak
16 01 18	Metal ez-ferrosoak
16 02 16	Ekipamendu baztertuetatik kendutako osagaiak, 16 02 15 kodean zehazten ez direnak
16 11 04	Bestelako estaldurak eta erregogorak, prozesu metalurgikoetatik datozenak, 16 11 03 kodean zehazten ez direnak
17 04 01	Kobrea, brontzea, letoia
17 04 02	Aluminioa
17 04 04	Zinka
17 04 05	Burdina eta altzairua

EHZ kodea	Hondakinaren deskribapena
17 04 06	Eztainua
17 04 07	Metal nahasiak
19 01 02	Labe-hondoaren errautsetatik bereizitako material ferrikoak
19 01 12	Labe-hondoko errautsak eta zepak, 19 01 11 kodean zehazten ez direnak
19 10 01	Burdinazko eta altzairuzko hondakinak
19 10 02	Hondakin ez-burdinazkoak
19 10 04	Zatitzearen zati arinak (fluff-light) eta hautsa, 19 10 03 kodean zehazten ez direnak
19 10 06	Bestelako frakzioak, 19 10 05 kodean zehazten ez direnak
19 12 02	Burdin metalak
19 12 03	Metal ez-burdinazkoak
19 12 04	Plastikoa eta kautxua
19 12 12	Hondakinak mekanikoki tratatzeetik eratorritako bestelako hondakinak (material-nahasketak barne), 19 12 11 kodean zehazten ez direnak
20 01 40	Metalak

#### D.1.2.– Hondakin arriskugabeen sarrera kontrolatzea.

Instalaziora balorazioa egiteko iristen diren hondakinen kontrola egin beharko da, ebazpen honen baldintzen arabera onargarriak direla bermatzeko.

Kontrol horretan, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezartzen den egiaztapena egin beharko da. Agiri horretan, onartzeko parametro mugatzaile eta baldintzatzaileak ezarriko dira. Egiaztapen hori sarrera-kontrolako agiri batean erregistratuta geratuko da.

Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, hondakin mota gehiago kudeatu ahal izateko, beharrezkoa izango da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren onarpena lortzea aldez aurretik, eta ebazpen honen H apartatuan ezartzen dena betetzea.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen hondakinak lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duen 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batetik lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritik Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

#### D.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen geralekuek zolata iragazgaitza izango dute, eta, orobat, behar diren maldak eta balizko jarioak biltzeko sareak, horiek kutxatila itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, betiere bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Instalazioan egiten diren hondakinen zamalanek eta manipulazioek, baita ekipamenduen estankotasunak ere, emisio lausoak edo kontrolik gabeak saihestu beharko dituzte, edo, saihestu ezin denean, ahalik eta gehien murriztu.

#### D.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

Hondakinak estankotasun-baldintza egokietan biltegitratuko dira, gerta daitezkeen ihes edo isurien balizko eragina saiheste aldera; halakorik gertatuz gero, haiek bildu eta karakterizatu egingo dira.

Bi urtekoa izango da balorizatu beharreko hondakin arriskugabeak gordetzeko gehieneko epea.

Tratatu beharreko hondakinak biltegitratzeko instalazioek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte, aurreikusitako zamak jasateko eta egon litezkeen ihes edo isuriei eusteko gai direnak, eta biltegitratze-eremu bereziak izan beharko dituzte hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako.

Instalazioan onartutako hondakinak biltegitratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

Hautsezko hondakinak eta soltean hartutakoak pabiloiaren barruko piloetan edo hobietan biltegitratuko dira.

Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezken. Bilketa-sistemek independenteak izan behar dute isuriren bat gertatu eta nahasiz gero arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakin motetarako.

Baldin eta hondakinak desagertu edo galduko balira, edo ihesen bat balego, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, Legutioko (Araba) Udalari eta Araba Garapen Agentziari.

Instalazioaren etenaldi teknikoaren egoera berezietan, edo instalazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko bestelako egoeretan, Deydesa 2000 SLk D.1.1 azpiapartatuan adierazitako hondakinen transferentzia-zentro gisa jardun ahal izango du, hondakinak kudeatzeko beste instalazio baimendu batera eramateko.

#### D.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuak erregistratzea.

Bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan ezarritakoarekin, Deydesa 2000 SLk fitxategi kronologikoa izan beharko du, formatu fisiko edo telematikoan. Fitxategian, datu hauek jasoko dira, ordena kronologikoan: hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa. Hala dagokionean, onartutako eta kudeatutako hondakinen garraiobidea eta bilketa-maiztasuna ere jasoko dira. Baztertutako hondakinei dagokienez, berriz, kantitatea, baztertutako hondakina sortzen duen enpresa, baztertzeko arrazoia, baztertutako hondakinaren azken helmuga eta beste gertakari batzuk jasoko dira. Aipatutako fitxategi kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen agiri bidezko egiaztapenean bildutako informazioa sartu behar da.

Artxibo kronologiko hori hiru urtez gorde beharko da gutxienez, eta urtero bidali beharko da Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluekin bat etorri, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da artxibo kronologikoan jasotako informazioaren memoria laburra, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

TEEHak kudeatzeko, fitxategi kronologikoa bat etorriko da 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinarekin, eta urteko memoriak otsailaren 20ko 110/2015 Dekretuaren XII. eranskineko gutxieneko edukia izan beharko du.

Fitxategi kronologikoa eta jasotako TEEHei buruzko urteko memoria plataforma elektronikoan kargatuko dira erabilgarri dagoenean, 110/2015 Errege Dekretuaren 55. artikuluan xedatutako terminoetan. Plataforma elektroniko horren bitartez, fitxategi kronologikoari eta urteko memoriaren lanketari dagozkion betebeharrak bete ahal izango dira.

Aurreko apartatuetan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

#### D.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, aurreikusten bada zabortegean deuseztatu beharko direla inportatu beharreko hondakinak zein inportatutako hondakinen helmugako instalazioan aurreikusitako balorizatzeko eta deuseztatze-tratamendutik lortutako korrante nabarmenen bat, orduan, kontsulta bat egin beharko zaio organo honi, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Planean zehaztutako hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

#### D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

##### D.2.1.– Lantegietan tratatutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

C.1 apartatuan adierazitako hondakinak onartu, jaso, ikuskatu eta gordetzeko baldintzak eta kontrolak eragotzi gabe, manipulazio- eta tratamendu-eragiketak zoladura iragazgaitz baten gainean egingo dira beti.

Kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko eta aluminiozko txatarren kasuan, dagozkien adostasun-deklarazioak egin direla egiaztatu beharko da, Europako Kontseiluaren martxoaren 31ko 333/2011 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Erregelamendu horretan, txatar mota jakin batzuek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak finkatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.

Kudeaketa-prozesuaren ondoriozko kobretxatarraren kasuan, dagozkien adostasun-deklarazioak egin direla egiaztatu beharko da, Europako Batzordearen 2013ko uztailaren 25eko 715/2013 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Erregelamendu horretan, kobretxatarrak hondakin izateari noiz uzten dion zehazteko irizpideak finkatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.

Era berean, aipatutako arauko I. eranskinean finkatutakoarekin bat ez datozen ezaugarriak dituzten kudeaketa-prozesuaren ondoriozko burdinazko, altzairuzko, aluminiozko eta kobrezko txatarren kasuan, hondakin gisako kudeaketa egiaztatuko da, kudeatzaile baimendu baten dagozkion onarpen-dokumentua aurkeztuz.

## D.2.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

## D.2.2.1.– Baldintza orokorrak.

Deydesa 2000 SLren instalazioaren ustiapenean bete beharreko baldintzak dira atmosferarako emisioek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako muga-balioak, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar aireratzen den gai kutsatzaile oro bildu eta bide egokienetatik kanporatuko da, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik iraganarazi ondoren, behar izanez gero.

Arau orokor honetatik salbuetsi ahalko dira emisio konfinatu gabeak, baldin eta teknikoki edota ekonomikoki atzeman ezin badira edo ingurunean oso eragin txikia dutela frogatua badago.

Neurri egokiak hartuko dira istripuz gertatutako emisioen probabilitatea txikitzeko, eta haien efluenteez giza osasunerako nahiz segurtasun publikorako arriskurik ez izateko. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira; alegia, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik daudenaldiak.

Proiektuan aipatzen diren atmosferako kutsaduraren inguruko neurriak beti beteko dira, bereziki hautsa ez aireratzeko neurriak, hala nola agregakin multzoak ureztatzea edo bideak garbitzea.

Instalazioaren titularrek abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte (278/2011 Dekretua, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituena).

Deydesa 2000 SLren hondakin-kudeaketako instalazioak ez du atmosfera kutsa dezaketen jarduerari loturiko foku konfinaturik urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren arabera (errege-dekretu horrek atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen du eta berau aplikatzeko oinarriko xedapenak ezartzen ditu). Aipatu jarduerak taula honetakoak dira:

Jardueraren kodea	Taldea	Jarduera	Deskribapena
09 10 09 51	C/B (1)	Biltegiatzea edo manipulazio-eragiketak, hala nola hondakin ez-metalikoak edo hauts-itxurako hondakin metalikoak nahastea, bereiztea, sailkatzea, garraiatzea edo txikitzea; material horiek manipulatzeko gaitasuna $\geq 100$ t/egun eta $< 500$ t/egun; hondakin arriskutsuen kasuan, $\geq 1$ t/egun eta $< 10$ t/egun.	
09 10 09 07	B	Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko hondakinen beste tratamendu batzuk	

Instalazioan emisio lausoak sortzen dira hondakin likido eta hauts-itxurako hondakin batzuk biltegiatzeko eta manipulatzeko eragiketen ondorioz.

Bereizteko eta sailkatzeko makinek badituzte emisio lausoak minimizatzeko behar diren iragazkiak edo arazketa-sistemak.

## D.2.2.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Hondakin arriskugabeak kudeatzeko Deydesa 2000 SLren instalazioak honako foku hauek ditu, Airearen Kalitateari eta Atmosferaren Babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoan jasotako 09100951 jarduerari lotuak.

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Katalogazioa	Funtzionamendu-erregimena
2	0100001345-02	Fluffaren frakzio ultra-arinaren tratamendua	09 10 09 51	Sistematikoa

Foku ez-sistematikoetako bat urtean batez beste hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzen hasten bada eta aldi bakoitzak ordubete baino gehiago irauten badu, edo, maiztasuna edozein dela ere, emisioen iraupena orokorrean instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, emisio-foku sistematiko gisa araupetu beharko da.

Hala ere, prozesua nolakoa den ikusita, partikulen emisio lausoak gerta daitezkeenez, horiek ahalik eta gehiena murriztuko dira teknika erabilgarri onenen bidez, aipatutako arauaren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Horretaz gain, emisioen kontrolari eta dispertsioari buruzko xedapenak betetzeko behar diren elementuek eragingarri egon behar dute instalazioa osorik edo haren zati bat martxan jartzen denean, eta dabilen bitartean.

Deydesa 2000 SL enpresaren eskabidean «Emisio atmosferikoak murrizteko jardun-protokoloa» deritzon lan-jarraibidea (PM 03 IT 01) aurkeztu zuten; horko informazioarekin bat, aspertsio-ekipoak eta laino-kanoia erabiliko dira egoera meteorologikoen arabera.

## D.2.2.3.– Emisioen muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren emisioetan, ez dira gaindituko gehieneko emisio-balio hauek:

Fokuak	Substantziak	Emisioen muga-balioak
2	Partikulak, guztira	5 mg/Nm <sup>3</sup>

Balio horiek baldintza hauekin lotuta daude: 273 K-ko temperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Emisio-balioak betetzen diren ebaluatzeko, abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duena beteko da. Ikusten bada emisioen muga-balioren bat ez dela betetzen, behar diren zuzenketa-neurriak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta, berehala, ez-betetzearen, zuzenketa-neurrien eta haien epeen berri eman beharko zaio ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari.

## D.2.2.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Emisio lausoak minimizatzeko, ihesak atzemateko ekipamenduak erabiliko dira, ingurumenaren kudeaketa egokia egingo da, eta instalazioa modu egokian diseinatuko da.

## D.2.3.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

## D.2.3.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokalekua.

– San Antolinen isuria sortzen duen jarduera mota nagusia: euri-ur zikinak eta prozesukoak.

Isurgunea	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurgunearen UTM koordinatuak
V1	Prozesuko urak	Industrialdeko kolektorea	X: 528930 Y: 4755012
	Ur beltzak		
	Euri-ur zikinak		

Deydesa 2000 SL (San Antolin) Goiaingo industrialdean dago, eta industrialde horrek badauka sortzen diren ur industrialak tratatzeko instalazio bat, Arabako Garapen Agentziaren jardunekoa. Industrialdeko sarera isurtzeko puntu bakarra dago, eta badauka B motako isurietarako baimena.

Instalazioan, euri-urak eta prozesukoak jaso eta arazketa-sistema propio batera eramaten dira, industrialdeko sarera isuri aurretik.

Deydesa 2000 SLk industrialdeko saneamendu-sarearekiko konexioa egin behar du kolektore bakar baten bidez, eta konexio hori erregistratu behar du dagokion erregistro-putzuaren bidez.

## D.2.3.– Gehienez isur daitezkeen emariak eta bolumenak.

– 1. isuria:

Puntako orduko emaria	1,64 (l/s)
Eguneko gehieneko bolumena	115,28 m <sup>3</sup>
Urteko gehieneko bolumena	39.678 m <sup>3</sup>

## D.2.3.2.– Emisioen muga-balioak.

Saneamendu-sarera egiten diren isurketen parametroak Araba Garapen Agentziak finkatutakoak izango dira –instalazioak horra egiten ditu isurketak– eta zerrenda honetan jasota daude, horietako bakoitzerako zehaztutako gehieneko mugak barne:

Parametroak	Ikurra	Unitatea	Balio maximoa	Eguneko batez besteko balioa
Temperatura	T	°C	40	40
Kolorea		-	Hautemanezina 1/40 disoluzioan	Hautemanezina 1/40 disoluzioan
pH-a	pH-a	-	6-8,5	6-8,5
Solidoak (0,45 mikrako iragazki batek atxikitako materia partikulatua. Iragazita eta pisatuta zehaztuko da)		mg/l	500	300
Eroankortasuna	-	µS/cm	3000	2000
OEB <sub>5</sub>	-	mg O <sub>2</sub> /l	400	200
OEK	-	mg O <sub>2</sub> /l	600	400
Amonioa	NH <sub>4</sub>	mg/l	60	40
N-amoniakala	N-NH <sub>3</sub>	mg/l	46,5	31,06
Nitrogeno amoniakal erasokorra	N erasokorra	mg/l	120	10

2024ko irailaren 4a, asteazkena

Parametroak	Ikurra	Unitatea	Balio maximoa	Eguneko batez besteko balioa
Nitratoa	NO <sub>3</sub>	mg/l	20	10
N-Nitratoa	N-NO <sub>3</sub>	mg/l	6,09	3,04
Nitritoa	NO <sub>2</sub>	mg/l	10	5
N-Nitritoa	N-NO <sub>2</sub>	mg/l	3,26	1,13
Guztizko nitrogenoa	IA	mg/l	70	40
Animalia- edota landare-jatorriko olioak edota koipeak	O eta K	mg/l	75	10
Olio mineralak	-	mg/l	Ez dago	Ez dago
Detergenteak	-	mg/l	10	2
Guztizko zianuroak	ZK <sup>-</sup>	mg/l	0,5	
Sulfuroak	S <sup>2-</sup>	mg/l	2	
Sulfatoak	SO <sub>4</sub> <sup>2-</sup>	mg/l	1000	
Sulfitoak	SO <sub>3</sub> <sup>2-</sup>	mg/l	5	
Fluoruroak	F <sup>-</sup>	mg/l	10	
Kloruroak	KI <sup>-</sup>	mg/l	1500	500
Kloro askea	Cl <sub>2</sub>	mg/l	2,5	
Fosforoa, guztira	P guztira	mg/l	15	10
Pestizidak	-	mg/l	0,2	
Aldehidoak	-	mg/l	4	
Fenolak	-	mg/l	0,01	
Aluminioa	Al	mg/l	15	2
Artsenikoa	As	mg/l	0,2	
Barioa	Ba	mg/l	10	
Boroa	B	mg/l	5	
Kadmioa	Cd	mg/l	0,2	
Kobaltoa	Co	mg/l	0,2	
Kobrea	Cu	mg/l	2	
Kromoa, guztira	Cr/guztira	mg/l	2	
Kromo hexabalentea	Cr6	mg/l	0,5	
Eztainua	Sn	mg/l	5	
Burdina	Fe	mg/l	10	
Manganesoa	Mn	mg/l	2	
Merkurioa	Hg	mg/l	0,05	
Molibdenoa	Ne	mg/l	0,02	
Nikela	Ni	mg/l	2	
Zilarra	Ag	mg/l	1	
Beruna	Pb	mg/l	0,5	
Selenioa	Se	mg/l	0,5	
Titanioa	Ti	mg/l	1	
Banadioa	V	mg/l	4	
Zinka	Zn	mg/l	5	
Toxikotasuna	-	equitox/l	25	
Metalak, guztira	-	mg/l	(*)	

(\*)Zn+Cu+Ni+Al+Fe+Cr+Cd+Pb+Sn+HG&lt;20

Horrez gain, jarraian zehazten diren isurketen muga-balioak ezartzen dira 1. isurgunetik datozen euri-ur zikinen isurirako. Balio horiek betetzen diren ebaluatzeko, azken ingurune hartzailera egindako isurketa ez ezik, eskualdeko hondakin-uren araztegi hartzailean murriztutako kutsadura ere hartuko da kontuan:

Parametroak	Isurketen muga-balioak
Kromoa, guztira	0,15 mg/l
Kromoa, VI	0,15 mg/l
Cu	0,5 (mg/l)
Cd	0,05 (mg/l)
Ni	0,5 (mg/l)
Zn	2 (mg/l)
Pb	0,3 (mg/l)
Hg	5 (µg/l)
As	0,05 (mg/l)
Hidrokarburoen indizea (HI)	10 (mg/l)

\* Lagin dekantatueta

Muga-balioak betetzeko, honako hauek erabiliko dira:

Balio maximoa:

- Laginketa puntualak.

Batez besteko balioa:

– Emariarekiko proportzionalak diren lagin konposatuak, 24 ordutan hartutakoak, isurketa jarraitua bada.

– Denborarekiko proportzionalak diren lagin konposatuak, emariak behar adina egonkortasun badu.

– Bolumenaren arabera parametro jarraitu haztatuaren arabera kalkulua, bolumenaren neurketa jarraitua badago.

– Isurketa-aldian emariarekiko proportzionalak diren lagin konposatuak, isurketa-aldia jarraitua ez bada eta sortaka egiten bada.

– Isuria sortaka egiten bada eta behar bezala nahastuta badago eta homogenea bada, laginketa puntuala hartuko da isuriaren aurretik.

Araztegiko efluenteak ibilgu publikora isurtzeko baimena betetzen ez badu, enpresaren ez-betetzea ebaluatu ahal izango da dagokion kalkulua eginda, azken ingurune hartzailera egindako isurketa, xede den hondakin-uren araztegiko kutsaduraren murrizketa eta erabakigarriak diren faktore guztiak kontuan hartuta.

Baimen honek ez du babesten berariaz adierazitakoak ez diren beste substantzia batzuk isurtzea.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili, isurketen muga-balioak lortzeko.

San Antolin kalea eta Goian industrialdea banatzen dituen sarea egin ondoren, enpresak nahitaez bereizi beharko ditu euri-urak eta hondakin-urak eta prozesukoak. Hondakin-urek eta prozesuko urek aurrez ezarritako parametroak betetzen jarraitu beharko dute, baina euri-urek parametro mugatzaileagoak izango dituzte; horrela, ur horiek kolektore orokorretik hustu ahal izango dira ibilgu publikoetara, aurrez araztu beharrik izan gabe.

D.2.3.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Deydesa 2000 SLk badauka instalazioan jasotako euri-urak eta prozesukoak bertako arazketa-sistemara bideratzeko sistema bat, instalazioaren industrialdeko sarera isuri aurretik; hidroxido kaltzikoa, kloruro ferrikoa eta azido klorhidrikoa dosifikatzeko sistema bat da bertakoa.

Malutapen-tratamendua da, efluentean dauden solido esekien karga murrizteko. Solidoak bereizi ondoren, prentsa-iragazki batera igarotzen dira, solidoen ur-edukia murrizteko.

Deydesa 2000 SLk aurretratamendurako egiten dituen eragiketek hondakin erdi-solido bat sortzen dute, solido prentsatuena. Hondakin hori ez da arriskutsua, eta kudeatzaile baimendu batek kudeatzen ditu.

Hartutako zuzenketa-neurriak nahikoak ez direla ikusiz gero, Deydesa 2000 SL enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Organo honi eta Araba Garapen Agentzia SAri jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxatila bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxatila horrek isurketen lagin adierazgarriak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Administrazioak eta Araba Garapen Agentzia SAri egoki deritzonean ikuskatzeko sarbide zuzena duen lekuan kokatuko dira kutxatilak.

Ekaitz-tanga horretarako bakarrik erabili beharko da, eta ez homogeneizazio-gordailu gisa. Beraz, enpresak maila-radar PLCdun bat instalatu beharko du Araba Garapen Agentzia SAK informazioa zuzenean eta etengabe eskuratzeko aukera izan dezan. Jarduketa hori Araba Garapen Agentzia SAK baimendu beharko du alde zuzenetik.

Euri-urak eta ur beltzak behar bezala bereizteko beharrezkoak diren obrak egin beharko dira erabiltzaileen barne-instalazioetan. Baldintza hori Goian industrialdeko San Antolin kalean urak bereizteko sarea dagoen unean bete beharko da.

D.2.4.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira, euren izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatzea bideratu: horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Birsortzea-berrerabiltzea lehenetsiko da balorizatzeke beste edozein moduren aurretik, izan materiala edo energetikoa.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimendurik badago hondakin zehatz batzuk tratatzeko, hondakin horiek instalazio horietara bidali beharko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baldin eta aurreikusten bada hondakindegia baimenduan ezabatzea dela hondakinaren azken helmuga, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak (hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituena) xedatutakoari jarraituz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak (Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinaren kantitateak –ebazpen honetan daude jasota– orientagarriak dira soilik; kantitate horiek kalkulatzeko, kontuan hartu dira jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinaren arteko erlazioa. Azken datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (4.d apartatua) ezarritakoa alde batera utzi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinaren kantitatea handitzeak aurretik ezarritako biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan daudelako edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinentzat, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Hauts-itxurako hondakinaren kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak lehen aldiz atera aurretik, kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko da, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezaugarriari dagokienez, bat etorritik betiere honako hauetan ezarritako irizpideekin: Europako Hondakin Zerrenda, Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakiaz argitaratua, zeinaren bidez aldatzen baita Hondakin Zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko 1357/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (hondakinei buruzko zuzentarau horrek zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota dauden eta berori izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Baldin eta hondakinak desagertu edo galduko balira, edo ihesen bat balego, berehala jakinaraziko zaie gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, Legutioko (Araba) Udalarari eta Araba Garapen Agentzia SAri.

Sortutako hondakinak beste autonomia-erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren lurraldearen barruan hondakinak lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora errege-dekretu hori garatuta xedatzen dena bete beharko da.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, bat etorritik Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikularekin.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31. artikuluan xedatutako eta ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kausetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Hondakin arriskutsuak Estatutik kanpora esportatzen baldin badira, hondakinen lekualdaketei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan ezarritakoa bete beharko da.

#### D.2.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak hondakin arriskutsu hauek aitortu ditu:

EHZ	Hondakinaren deskribapena	Arriskugarritasun-ezaugarriak	Kudeatzeko modua	Biltegiatze mota	Sortze-prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (kg/urte)
16 01 07*	Olio-iragazkiak	HP5	R13	Bidoia	Instalazioen eta makinaren mantentze-lanak	30 unitate
16 01 21*	Erregai-iragazkiak	HP5	D15	Bidoia		376
20 01 21*	Lanpara fluoreszenteak	HP14	R13	Bidoia		3
13 02 05*	Olio erabiliak	HP5/6	R13	Bidoia		1000
16 06 01*	Berunezko bateria erabiliak	HP5/8	R13	Edukiontzia		10000
16 05 04*	Aerosolak	HP3/HP5	R13	Edukiontzia		50
08 01 11*	Pintura-hondakinak	HP5	D15	Edukiontzia		50
12 01 12*	Argizari eta koipe erabiliak	HP14	R13	Bidoia		60
13 05 02*	Lohi hidrokarburatuak	HP6	D9	Zisterna		Aldizkakoa (10 t)
14 06 03*	Disolbatzaile organiko ez-halogenatua	HP6/HP14	R13	Bidoia		150
15 02 02*	Trapuak, iragazkiak eta xurgatzaileak	HP5	D15	Bidoia	Hondakinak multzokatzea	50
15 01 10*	Plastikozko ontziak	HP5	D15	Edukiontzia		35 ontzi
15 01 10*	Metalezko ontziak	HP5	D15	Paleta		14 bidoi

a) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagozkion izendapena eta kodea hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera ezartzen dira, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrikoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran zehar. Horiek definitzen dituzte mota eta hondakinaren osagai arriskutsuak. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke eta Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Euskadiko 2030 Planean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratuetan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskabidea egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, leheneratzea edo balorizazioa kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen tratamendu-kontratuetan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzea eskatzen bada.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta bilgarriek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute, eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezzen.

d) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetze baino gehiagoz biltegitatu. Salbuespen-egoeretan, ingurumen-organismoak aldatu ahalko du epe hori, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan, hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa bada, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamendua egokia den aztertzeke. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Deydesa 2000 SLk tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo haien baliokide diren agiri ofizialak erregistratu eta artxiboan gorde beharko ditu, gutxienez hiru urtez.

g) Egiaztatu beharko da baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak betetzen dituela halako salgaiak garraiatzeari buruzko indarreko legerian eskatutako betebeharrak.

h) Deydesa 2000 SLk Industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatuaren arabera kudeatuko dira. Pilen eta metagailuen hondakinek, halaber, Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratu izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbuesita egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, baita toki-erakundeei ematen zaizkien ere, gaika bildutako hiri-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu, betiere. Toki-erakundeei eman izanaren egiaztagiria hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Deydesa 2000 SLk poliklorobifeniloak (PCB) dituzten edo izan ditzaketen aparatuak dauzkan bitartean, haiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan (poliklorobifeniloak, poliklorotrifeniloak eta horiek dituzten aparatuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen) eta hura aldatu zuen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

k) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ozono-geruza agortzen duten substantzien gainean 2009ko irailaren 16an eman zuen 1005/2009/EE Erregelamenduak adierazten dituen substantzia erabiliak baldin baditu Deydesa 2000 SLk, berreskuratu egingo ditu, alderdiek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarri den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

l) Deydesa 2000 SLk urtero adierazi beharko du Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidali beharko du.

m) Bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Deydesa 2000 SLk urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria eta kantitatea, helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidali beharko du.

n) Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan bat etorri, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira hondakin guztien kantitatea, mota, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta lekuak eta sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketaren oinarriko printzipioetako bat betetzeko, hau da, mota horretako hondakin ahalik eta gutxien sortzea, Deydesa 2000 SLk hondakin arriskutsu gutxiago sortzeko plan bat egin eta aurkeztu beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, lau urtetik behin, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 18.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, betiere aipatutako legea garatzen duen araudiak ez badu Deydesa 2000 SL hondakin arriskutsuen ekoizle txiki gisa katalogatzen.

p) Deydesa 2000 SL industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.

q) Apartatu honetako f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta m) apartatuan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoko bidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskaintako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

r) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Deydesa 2000 SLk Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienerako baldintzak.

#### D.2.4.2.– Hondakin arriskugabeak.

Sustatzaileak hondakin arriskugabe hauek aitortu ditu:

EHZ kodea	Hondakinaren izena	Dagokion prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (t/urte)
08 03 13	Tinta-tonerrak eta -kartutxoak	Administrazioa	0,01
15 01 02	Plastikozko ontziak	Instalazioen eta makinen mantentze-lanak	5
15 01 03	Zura	Ekoizpena	10
16 02 16	TEEHen osagai arriskugabeak	Ekoizpena	50

EHZ kodea	Hondakinaren izena	Dagokion prozesua	Ekoizpen zenbatetsia (t/urte)
17 09 04	Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak	Obrak (unean uneko hondakinak)	10
19 08 04	Araztegiko lohiak	Araztegia	20
19 10 01	Burdinazko hondakin zatikatua	Ekoizpena	5000
19 10 02	Burdinarik gabeko hondakin zatikatua	Ekoizpena	1500
19 12 02	Burdin metalak	Ekoizpena	5000
19 12 03	Metal ez-burdinazkoak	Ekoizpena	10000
19 12 04	Plastikoa eta kautxua	Ekoizpena	20000
19 12 09	Lurra eta harriak	Ekoizpena	20000
19 12 09	Harria	Ekoizpena	6000
19 12 12	Birziklatze-errefusak	Ekoizpena	50000
19 12 12	Kontzentratuak eta beste bereizte- eta berreskuratze-hondakin batzuk	Ekoizpena	900

a) Bigarren apartatuaren D.2.4. azpiapartatuan xedatutakoarekin bat etorriz eta hondakin kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balorizatu egin behar da, eta, hartarako, balorizatzaile baimendu bati entregatu beharko zaizkio. Hondakinak kasu honetan baino ezin izango dira deuseztatzea bideratu: horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala frogatzen bada. Justifikazio tekniko hori lortzeko, hondakin hori onartzeko baimenduta dauden hiru kudeatzailek ezetza eman behar diote kasuan kasuko hondakina balorizatzeari.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika eta behar bezala bereizi behar dira. Erabilitako ontziak eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, leheneratzaile, birziklatzaile edo balorizatzaile baimendu bati.

c) Hondakin horiek deuseztatzeke direnean, ezin dira urtebetetik gora eduki biltegiratuta. Balorizatzeke direnean, bi urtez eduki ahal izango dira.

d) Oro har, ebakatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako kondizioak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Deydesa 2000 SLk erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, gutxienez hiru urtez.

e) Hondakina zabortegira eramateko bada, jarraipen- eta kontrol-dokumentua bete beharko da hondakin arriskugabea lekualdatu aurretik, Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.

f) Balorizatzeke edo ezabatzeke helburuarekin hondakinak beste autonomia-erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipena eta kontrola egiteko, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 31.2 artikulua araber.

g) Deydesa 2000 SL industria-ontzi baten azken jabea bada, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 44. artikuluan xedatutako betekizunak bete beharko ditu.

h) Bat etorri Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 65. artikuluan xedatutakoarekin, Deydesa 2000 SLk urtero adierazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari sortu dituen hondakin arriskugabe guztien jatorriaren eta kantitatearen, haien helmugaren eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen laburpen-memoria, deklarazioaren xede den ekitaldiaren amaieran. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidali beharko du.

i) Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluari jarraikiz, fitxategi kronologiko bat egingo da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak eta hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak. Fitxategi hori gutxienez 3 urtez gorde beharko da, eta urtero bidali beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programaren barruan.

j) Apartatu honetako d) eta e) letretan (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f) eta g) letretan adierazitako agiriak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektroniko bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eskainitako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliz.

#### D.2.5.– Ontziak merkaturatzea.

Enpresak produktu ontziratutak eta bilgarridunak merkaturatzen baditu, bilgarri horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, Ontzien Gaineko Urteko Adierazpena egin beharko du. Datu horiekin batera, ingurumena zaintzeko programa, dagokion urtekoa, bidali beharko du.

Halaber, ontzien eta ontzi-hondakinen abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 43. artikuluan hornitzaileei ezartzen zaizkien betebeharrak bete beharko ditu.

Sustatzailea behartuta dago bosturteko Ekodiseinu eta Prebentzioko Enpresa Plana aplikatzera, urte natural batean, ontziratutako produktuak edota industria- edo merkataritza-ontziak merkaturatzen baditu eta jarraian zehazten diren kantitateak gainditzen dituzten hondakinak sortzen baditu:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.
- 20 tona, plastikoa soilik bada.
- 20 tona, zura soilik bada.
- 15 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.
- 300 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Ekodiseinu eta Prebentzioko Enpresa Plan horretan, kontuan hartu beharko ditu ontzi-hondakinak prebenitzeko tresnetako zehaztapenak. Halaber, aurreko planetako helburuen betetze-mailaren laburpena sartu beharko du, prebentzio-helburu kuantifikatu berriak adierazita, baita horiek erdiesteko neurriak eta betetzen dituela kontrolatzeko mekanismoak ere, abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluari jarraikiz. Plana amaitu ondoren hiru hilabeteen barruan bidali beharko du horiei guztiei buruzko txostena, planean jasotako prebentzio-neurrien betetze-maila zehaztuta.

Bost urtean behin bidali beharko ditu aipatu bi dokumentu horiek, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera.

#### D.2.6.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) ezarritako aginduak betetzeko aurkeztutako lurzorua egoerari buruzko aurretiko txostenarekin bat etorriz, eta horretan bildutako gomendioak jarraituz, Deydesa 2000 SLk lurzorua babesteko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 16.2 artikuluari jarraikiz, lurzorua egoeraren txostenak aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 urtean behin, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan eta urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuan ezarrita dauden lurzorua babesteko betebeharrak betetze aldera, sustatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

– Oinarrizko txostena, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren 20. artikuluan aipatutako epeak eta maiztasunak beteta.

– Lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 10.2 artikuluan ezarritako epeen arabera.

Nolanahi ere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzorua kalitatea lehenagotzen diharduen erakunde egiaztatu batek egina, eta aipatutako txostenak bilduko ditu hor (lurzorua egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarrizko txostena eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol- eta jarraipen-agiriak). Aurrerantzean ere, emandako agiriak aldatu edo agiri berriak eman behar badira, lurzoruen agiri bakar berri bat bidaliko da.

#### Lur-mugimenduak.

Sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurra mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikulua 1.c) apartatuan jasotzen denari jarraikiz, induskatu beharreko materialak (lurra, eraiste-hondakinak eta abar) karakterizatu egin beharko ditu jardueraren sustatzaileak, ekintza kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horiek kudeatzeko modu egokiena zehaztearen.

b) Jarduketa horretan aurreikusten bada induskatu beharreko materialen bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik gorakoa dela (zolatak barne), edo jarduketa egin bitartean gainditze hori antzematen bada, nahitaezkoa izango da indusketa selektiborako plan bat aurkeztea, lurzorua kalitatea ikertzeko eta lehenagotzeko egiaztatuta dagoen entitate batek egina. Indusketa-planak abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu beharko du, gauzatu aurretik.

c) Induskatu beharreko bolumena 500 m<sup>3</sup>-tik beherakoa bada, aldaketaren jakinarazpenak honako informazio hau jaso beharko du:

– Jarduketaren pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen eta jarduketa burutuko duen kontratadunaren identifikazioa.

– Jarduketak ukituko duen lekuaren kokapen-datuak, Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroaren erreferentzia barne hartuta.

– Jarduketaren xede den eremuaren mugaketa eta azalera. Jakinarazpenean, lurzatia eta jarduketa-eremua zehatz-mehatz non dauden jakitea ahalbidetzen duten planoak erantsiko dira.

– Jarduketaren deskribapen xehatua.

– Induskatuko diren materialen bolumena, zolatak barne.

– Ingurumen-jarraipeneko lanen eta azken txostena egitearen arduradunaren identifikazioa; artikulu honetan aipatutako kasuetan erakunde egiaztatua izan beharko du.

– Jarduketa hasteko aurreikusitako datak.

d) Aurreko kasuetako edozeinetan, obra egin ondoren, azken txostena bidali beharko du. Bertan, lurren karakterizazioaren emaitzak adierazi beharko dira; horrez gain, induskatutako materialen berrerabilera edo kudeaketa egokia egiaztatzeko txosten bat ere bidali beharko da. Indusketaren bolumena 100 m<sup>3</sup>-tik gorakoa bada, entitate egiaztatu batek egingo ditu ingurumen-jarraipenerako lanak eta txostena.

e) Arau orokor gisa, Kutsatutako lurzoruetan indusketa selektiboak egiteko gidan jasotzen diren eta jarraian adierazten diren irizpideak beteko dira. Esteka honetan eskura daiteke gida:

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/kutsatutako-lurzoruetan-indusketa-selektiboak-egiteko-gida>

f) Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, laginketa egiteko, abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren IV. eranskinean eta gidaren 10.2.6 apartatuan («Induskatu behar diren lurzoruetan in situ egindako laginketa») biltzen diren induskatu beharreko materialen karakterizazio-kanpaina diseinatzerakoan kontuan hartu behar diren oinarrizko irizpideei jarraituko zaie.

g) Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako B-EBA (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta analisisa, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.

h) Lur garbitzat hartuko dira ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako A-EBA balioak baino txikiagoak eta TPHetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak dituzten lurrak, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelanerako.

i) Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahalko da. Lurzoru naturalaren parekoa den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldaketa egitea instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 1. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Horrez gain, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikularen arabera, kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, hartu beharreko neurriak ezar ditzan sailburuordetza horrek, bat etorritz aipatutako 4/2015 Legearen 23.1.e) artikularekin.

#### D.2.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Beharrezko diren neurri guztiak ezarriko dira honako indize akustiko hauek gaindi ez daitezen:

a.1.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leihoak eta atek itxita, ezta LMax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Maila hauei egokitu behar zaie jarduera: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta atek itxita, ezta LMax indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 metroko altueran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; horietan, pantailatzeak saihesteko behar den altuera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
L <sub>d</sub>	75
L <sub>e</sub>	75
L <sub>n</sub>	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun modu bat baldin badago, jardun modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti), non Ti baita jardun modu horren iraupen-denbora. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gaindituko.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handieneko gunetako zarata-maila.

#### E) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako apartatu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

##### E.1.– Atmosferara eginiko emisioak kontrolatzea.

Deydesa 2000 SLk emisio lausoak minimizatu beharko ditu, batik bat partikulak, Batzordearen 2018ko abuztuaren 10eko 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakian (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauaren arabera, hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak ezartzekoa) jasotako 14. TEOan deskribatzen diren tekniken konbinazio bat erabiliz:

a) Emisio lausoen iturri potentzialen kopurua murriztea.

b) Integritate handiko ekipoak hautatzea eta erabiltzea.

- c) Korrosioa prebenitzea.
- d) Emisio lausoeri eustea, horiek biltzea eta tratatzea.
- e) Hezetzea.
- f) Mantentzea.
- g) Hondakinak tratatzeko eta biltegitratzeko eremuak garbitzea.
- h) LDAR programa (jarioak hautemateko eta konpontzeko programa).

Deydesa 2000 SLk jardunbide onenak aplikatu beharko ditu emisio lausoak minimizatzen eta, horretarako, jarraian adierazten diren emisioak minimizatzen neurriak hartuko ditu gutxienez:

– Kargak, deskargak eta garraioa: materiala garraiatuko duten kamioiak olanekin edo hautsa harrotzea saihesten duten bestelako elementuekin estali beharko dira. Era berean, ibilgailuak gidatzeko abiadura mugatuko da, eta ibilgailuen zirkulazio-eremuek zolatuta egon beharko dute. Kanpoko uhal garraiatzaileak erabiliz gero, eta horrek emisio lausoak garraiatuz gero, karenatu egingo dira, haizearen eraginez partikulak ez zabaltzeko, bibrazioak ekiditeko, etab.

– Hautsezko materialak biltegitratzea: hautsezko materialak perimetroko hesietatik ahalik eta urrunen pilatuko dira, eta inguruko horma gisa jardungo duten beste biltegitratze batzuek babestuta. Horma bat jarriko da biltegitratze-eremuaren inguruan, haizetik babesteko. Pilaketa egiteko, luzetarako ardatza haize nagusiarekiko paraleloan egon beharko da. Lurzatiaren inguruko hesiaren altuera aintzat hartuta, pilaketen, solteko gaien eta hauts-itxurako materialen altuera kontrolatuko da. Biltegitratze-lekuen plangintza, ikuskapena eta mantentze-lanak egingo dira.

– Bideak, zoruak eta makinak garbitzea: aldi behin bideak, lurzorua eta makinak garbituko dira. Aldizka makinaren maniobra-guneak ureztatuko dira pilaketak egiteko erabiltzen den zabalgunearen barruan, baita pilaketak egiteko zabalgunera sartzeko pistak ere.

– Eragiketak: aire zabalean ez da egingo hautsezko materiala manipulatzeko lanik, baldintza klimatologikoen eraginez hautsa sakabanatu daitekeenean; ahal den neurrian, hura ez sakabanatzen saiatuko da. Ebaketa-eragiketarik egonez gero, ahal den neurrian partikulen emisio atmosferikoak minimizatuz egingo dira.

– Birrintzeko/zatikatzeko makinak: birrintzeko makinek iragazkiak edo arazketa-sistemak izango dituzte emisio lausoak minimizatzen. Aldi behin prebentziozko mantentze-lanak egingo dira ekipoek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko. Egindako mantentze-lanen erregistro eguneratua egingo da.

– Aldizkako ikuskapenak eta erregistroa: aldizkako begizko ikuskatzeak egingo dira, deskribatutako neurriak zer neurritan betetzen diren egiaztatzen. Ikuskatze horiek erregistro baten bidez dokumentatuko dira, eta informazio hau jasoko da gutxienez:

- Ikuskapenaren data.
- Ikuskapenaren arduraduna.
- Funtzionamendu-baldintzak: karga-deskarga/biltegitratzea/bideak garbitzea.
- Ikuskapenaren emaitzak.

Emisio lausoak minimizatze aldera, emisioak biltzeko sistemen mantentze-lan egokia egingo da; horrez gain, besteak beste, instalazioa garbituko da, kanpoko ateak eta pabiloiarenak itxiko dira, eta ingurumen-praktika egokiak eta teknika erabilgarri onenak aplikatuko dira.

Administrazioak irregulartasunak hautematen baditu, edo kexak jasotzen baditu, foku lausoen irteerak egokitzeko eskatu ahal izango du, emisio bideratuen baimenean sartzeko, horiei dagozkien muga eta neurketa-aldizkakotasunekin.

a) Deydesa 2000 SLk emisioak kontrolatu beharko ditu, informazio honen arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokua izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Metodoak
2	0100001345-02	Fluffaren frakzio ultra-arinaren tratamendua	Partikulak, guztira	Sei hilean behin	UNE-EN 13284-1

b) Puntu honetako a) letran aipatutako neurketa guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen den bezala; eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek, berriz, Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, batik bat honako hauei dagozkienak: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta neurketa bakoitzaren banako iraupena eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

c) Halaber, a) apartatuan azaldutako emisio-foku baten kontrola egin behar den urtean, foku horrek urtean hamabi aldiz baino gutxiagoko batez besteko maiztasunarekin funtzionatzen badu, emisio bakoitzak ordubete baino gehiago irauten duela, edo, bestela, edozelako maiztasunarekin, emisioaren iraupen globala instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, urte horretan ez da beharrezkoa izango foku horren kontrolik egitea, eta hurrengo urtean egin beharko da, betiere kontroletik salbuesteko baldintzek irauten ez badute. Inguruabar hori dagokion urteko ingurumena zaintzeko programan justifikatu beharko da.

E.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren III. eranskina.

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

E.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkezten dituen agirien arabera, analitika hauek egingo dira:

Isurgunea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrola gauzatzea	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Euri-urak, hondakin-urak eta prozesukoak	AGA	Araba Garapen Agentziak Goiango kolektoreetara isurketak egiteko ezarritako gehieneko parametro onargarriak	AGA	ILE

b) «Lankidetzako erakunde» batek egin eta egiaztatuko ditu kanpoan egiten diren kontrol guztiak (bai laginak hartzeko garaian, bai ondorengo analisiak egitean), eta goiko puntuetan adierazitako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo, bestela, lagin puntual adierazgarria.

c) Araba Garapen Agentziak ezarritako parametroen kasuan, laginketak eta horien ondorengo analisia Araba Garapen Agentziak kontratatutako ingurumen-lankidetzako erakundeak egin eta egiaztatu beharko ditu, hark beharrezkotzat jotzen duen maiztasunarekin.

Araba Garapen Agentziak Deydesa 2000 SLri jasanaraziko dio zerbitzuaren zenbatekoa, urtero dagokion faktura eginez.

d) Kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti laginketak.

e) Isurketak baimenaren baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta puntu honetako a) apartatuan ezarritako kontrol-parametro guztiak betetzen badituzte ebazpen honen bigarren apartatuko C.2.3.2. azpiapartatuan ezarritako mugak.

f) Araba Garapen Agentziak Deydesa 2000 SLri bidaliko dizkio isurketa-kontrolen emaitzak, laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

g) Deydesa 2000 SLk kontrol guztien emaitzak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari igorriko dizkio, ebazpen honetako bigarren apartatuko E.6 azpiapartatuan ezarritako epeak eta baldintzak betez.

### E.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak taula honetan agertzen diren jardueraren gaineko parametro-adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko du.

Ingurumen-gaia	Adierazlea	Unitatea
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko	m <sup>3</sup> /t
Energia-kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko	Kwh/t
	Gas naturalaren kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko	m <sup>3</sup> /t
	Gasolio-kontsumoa, tratatutako hondakin tona bakoitzeko	litro/t
Hondakinen sorkuntza	Hondakin arriskutsuen sorrera, tratatutako hondakin tona bakoitzeko	t/t
	Hondakin arriskugabeen sorrera, tratatutako hondakin tona bakoitzeko	t/t
Istripuzko isurketekin lotutako gorabeheren kopurua	Kop./urte	Urtean behin
Ekoscan/ URTEA edo ISO14001/ URTEA edo EMAS/URTEA	Bai/Ez Zein/urtea	Urtean behin

### E.4.– Zarata kontrolatzea.

a) Indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira bi urtetik behin: Ld, Le, Ln, LAeq, Ti eta LAeq,60 segundo. Lehenengo kontrol-urtean lortutako emaitzen arabera, ordutik aurrera neurketak beste periodikotasun batekin egitea erabaki ahal izango da.

b) Aurreko apartatuan adierazitako ebaluazio guztiak Administrazioaren II. mailako ingurumen-lankidetzako erakunde (ILE) batek egin beharko ditu urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik. Erakunde horrek UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren arabera egiaztagiria eduki beharko du akustikaren arloan espazio- eta denbora-laginketa egiteko. Dena dela, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazioak egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

### E.5.– Lurzoruaren eta lurpeko uren kontrola.

a) Ebazpen honen hirugarren apartatuko D.2.4 puntuan eskatutako dokumentazioaren kaltetan izan gabe, hurrengo datu hauek aurkeztuko dira lurzoruarekiko afekzio berri baten aukera hauteman den kasuan:

– Aintzat hartutako aldian izan diren gorabeherak, substantzia arriskutsuak direla-eta lurzoruaren eta lurpeko uren kutsadura sortu ahal izan dutenak.

– Instalazioan hartutako neurrien egoera –zolak iragazgaiztea, drainatzeak, kubetak eta kutxatila– bai eta larrialdi-egoeran jarduteko bitarteko egokiak eta nahikoak erabilgarri daudela egiaztatzen duen adierazpena, teknikari eskudunak sinatua. Tresneria eta gainazalak egoera onean daudela egiaztatzen, edo, hala badagokio, horietan antzemandako hutsuneak jasotzen dituen berariazko adierazpena jaso beharko du.

– Lurzorua edo lurpeko urak kutsatuta egon daitezkeela dioen adierazpena, hala badagokio, edo, bestela, horrelako aztarnarik ez dagoela egiaztatzen duen adierazpena.

b) Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduari dagokionez jakinarazitako baldintzak aztertzean zehazten diren kontrolei kalterik egin gabe –agindu horrek Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide tekniko onartzen du–, eta lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotuta, Deydesa 2000 SLk lurzoruaren eta lurpeko uren kalitatearen kontrola egin beharko du. Horretarako, gutxienez bi zundaketa egin beharko ditu urak ezaugarritzeko, ateratako lurzoru-zutabea karakterizatzeko eta piezometro bana gaitzeko, eta horiek erabiliko dira lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko. Zundaketak kokatzean, kontuan hartuko dira egon litezkeen arrisku-iturriak eta lurpeko uren fluxua; hala, instalaziotik ibaian gora eta behera fluxua alderatu ahal izango da.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

Apartatu honetan jasotakoa betetzeko aurkeztu beharreko informazioa lehen aipatutako urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan xedatutakoaren arabera egiaztatutako erakunde batek egin beharko du, hala nola organo honek horretarako onar ditzakeen jarraibideetan adierazitakoaren arabera.

### E.6.– Emaizak kontrolatzea eta igortzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta azterketen emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara bidali, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webguneko bidalketa-prozedura telematikoari jarraikiz:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-a2inguru/eu/>

Hala, aipatutako programak zehaztutako aldian egiten diren kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera bakarrik aurkeztuko dira, erreferentziako urtea amaitu ondoren.

Ezarritako baldintzak urratzen diren kasuetan bakarrik bidali beharko da berehalako jakinarazpena Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzara, gertatutakoaren berri izan ondoren; horretarako, helbide elektronikoa hau erabili beharko da: [ippc@euskadi.eus](mailto:ippc@euskadi.eus)

Horrez gain, urtean behin baino gehiagotan egiten diren kontrolak kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, martxoaren 31 baino lehen betiere, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan jasoko dira babes- eta zuzenketa-neurrien eta prozeduren kontrolerako eta ingurumenaren kalitaterako sistemen funtzionamendua eta emaitzen analisia, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien balizko kausak eta konponbideak azalduz; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aldezturik hala egin ez bada.

#### E.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak. Honako hauek zehaztu beharko ditu programa horrek: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisisien edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen zehatza. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertze sistematika, adierazle horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

#### F) Ezohiko egoeretan, kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko lanak eta mantentze-lanetarako programatutako lanak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, sortuko diren emisioen eta hondakinen zenbatespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, haiek kudeatzeko eta tratatzekoa ere bai.

Instalazioa geldiaraztean nahiz abiaraztean, mantentze-eragiketetan eta ohiz kanpoko egoeretan sortutako hondakinak kudeatu beharko dira, bigarren apartatuko C.2.4 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik (azpiapartatu horren izena: «Instalazioan ekoiztutako hondakinen kudeaketa zuzena bermatzeko baldintzak»), baina ez da beharrezkoa izango hondakin horiek baimendutako hondakinen zerrendan jasota egotea.

#### F.2.– Jarduera etetea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituena. Horrenbestez, Deydesa 2000 SLk jarduera etete horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea igaro baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, bat etorritik ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Deydesa 2000 SLk instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen bigarren apartatuaren C.2.4 azpiapartatuan ezarritakoarekin bat etorritik.

### F.3.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako etetea eskatuz gero, Industriako Isurketen Erregelamendua onartzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan arautu bezala, Deydesa 2000 SLk, aldi baterako etetearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du lantegia jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen bateratuan ezarritako kontrolak eta eskakizunak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduera berriz hasi baino lehen, instalazioen funtzionamendu egokia ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina duen isuri edo emisio oro saihesteko.

### F.4.– Jarduera anomaloa izanez gero aplikatu beharreko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean zehaztuta dauden ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriez eta jardunerako baldintzez gain, ondorengo apartatuetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

#### a) Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere istripuz jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko jarioak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen ikuskapen bisualak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsatzeko arriskua dakarren edozein egoera prebenitzeko.

Era berean, atmosferara eta uretara egindako emisioak prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa eta abar) eta ikuskatu eta kontrolatzeko ekipoen egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

Urak arazteko prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak behar den maiztasunez aterako dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Hondakin horiek ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten denean; bildu egin beharko dira, kudeatzeko edo hondakindegira baimendu batera eramateko. Hala dagokionean, hondoa hustubiderik ez duten andel iragazgaitzetan biltegitratuko dira. Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko urak kutsatzeko arriskua egon daitekeen gunetan.

Baldin eta instalazioetan lohien tratamendua badago, horietatik isuritako ura berriro bideratuko da arazte-instalazioko sarrerara, tratamendua jaso dezan.

Pabilioen barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira edo, bestela, kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu.

Hondakin-urak ezingo dira bypass bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez bypass bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Araba Garapen Agentziari jakinaraziko die aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz.

Bypass bidez edo istripuz isuriren bat gertatzen bada, titularrak segurtasun-neurriak martxan daudela egiaztatuko du eta, horretarako, txostena bidaliko die, gehienez ere 48 orduko epean, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Araba Garapen Agentziari.

b) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

c) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu, arazketa-instalazioak modu egokian ustiatzeko eta istripuz gertatutako isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak mantentzeko.

d) Besteak beste, erabilitako olioak, efluenteen arazketako hondakinak, eta, orokorrean, fabrikari sortutako hondakinak maneiatzean, baliteke lurzorua eta ura kutsatzea. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua duten lurzatiak gainazal guztiak irazgaiztuko dira.

e) Hautsezko produktuak biltegitratzeko, silo itxiak edo hautsa xurgatzeko sistemak dituzten pabiloi estali eta itxiak eduki beharko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan gordeko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, biltegitratze-instalazioek eskakizun batzuk bete beharko dituzte; zehazki, produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoak.

h) Larrialdi-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezkoak diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeako erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gertatzen diren jarioei aurre egiteko produktu xurgatzaile selektiboak; segurtasuneko edukiontzia, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak, eta norbera babesteko ekipa egokiak.

i) Kubeten hustuketa kontrolatzeko balio duen protokolo edo prozedura dokumentatu bat edukiko da. Horri jarraituz, tratamendu-instalazioaren eraginkortasunari eragin diezaioketen produktu-isuriak instalaziora joatea saihestu beharko da.

j) Gorabeheraren bat izanez gero agintariei jakinaraztea.

Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabeheraren edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, sustatzaileak, berehala, gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko die Ingurumen Sailburuordetzari eta Araba Garapen Agentzia SAri, zuzentzeko edo eusteko neurri egokiak hartu ondoren betiere. Jakinarazpenean, alderdi hauek adierazi beharko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Jatorriak eta kausak (unean zehaztu daitezkeenak).
- Berehala aplikatutako zuzenketa- edo euste-neurriak.
- Sortutako ondorioak.
- Epe laburrera aurreikusitako jardunak, halakorik balego.

Gorabehera edo arazo larriren bat edo istripuz isurketa edo emisioen bat egonez gero, SOS Deiak, Legutioko Udala eta Araba Garapen Agentzia berehala jakinaren gainean jarri beharko dira. Ondoren, gehienez 48 orduko epean, istripuaren ondorioz sortutako egoera zehaztasunez jasotzen duen txosten bat bidali beharko zaie Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari eta Araba Garapen Agentziari. Txosten horretan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gorabehera mota.
- Gorabehera non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Gorabeheraren iraupena.
- Istripuz isurketarik gertatuz gero, emaria, isuritako gaiak eta ingurune hartzailean antzeman daitekeen eragina zehaztu beharko dira, haren analisisia barne.
- Mugak gaindituz gero, emisioei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen zenbatespena.
- Hartutako zuzenketa-neurriak.
- Ezohiko gertaera berriro ez gertatzeko prebentzio-neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

Baimenaren baldintzak urratzen dituen isurketa gertatzen bada eta, gainera, pertsonen osasunerako arriskutsua bada edo sistema naturalen oreka modu larrian kaltetu badezake, titularrak berehala etengo du isurketa hori; horrez gain, horren berri eman beharko die Araba Garapen Agentzia SAri, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko Uraren Euskal Agentziari eta babes zibilean zein ingurumenaren arloan ardurak dituzten erakundeei, baita SOS Deiak (112) larrialdi-zerbitzuei ere, behar diren neurriak har ditzaten.

k) Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, gerta daitezkeen gorabeherak edo arazoak saiheste aldera, jardueraren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari instalazioko edozein etenaldi programatu izango dela, prozesu etengabe batekoa bada, baita aurreikusitako prebentziozko mantentze-lanak ere, ahalik eta denbora-tarte handienarekin.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guztiak bete beharko dira.

G) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala eginarazten badigute, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai eta neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, babes- eta zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daitezke jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) E-PRTR komunikazioa.

Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Deydesa 2000 SLk, aurreko urtean atmosferara eginiko emisioei eta uretara eginiko isuriei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, bat etorri 508/2007 Errege Dekretuarekin eta ingurumena zaintzeko programarekin.

Informazio hori bidaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskura jarritako kanal, sistema edo aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Ingurumen-adierazpena publikoa izango da, bat etorritik uztailearen 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, une oro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

I) Instalazioan aldaketak egitea.

Instalazioetan aldaketak egin ahal izateko, honako helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da aldezturik:

[https://www.euskadi.eus/contenidos/serv\\_proc\\_comunicacion/p\\_comu\\_20194\\_158\\_89\\_9329/procedures/proc\\_20194\\_158\\_89\\_9905/es\\_def/adjuntos/Formulario\\_modificaciones.docx](https://www.euskadi.eus/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_20194_158_89_9329/procedures/proc_20194_158_89_9905/es_def/adjuntos/Formulario_modificaciones.docx)

Organo horren onespena ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Industriako Isurketen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailearen 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, bat etorritik urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan xedatutakoarekin, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, bat etorritik abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan xedatutako irizpideekin.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c eta 7.2.c artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, aldaketa gauzatu aurretik, hartu beharreko kokalekuaren lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa eduki beharko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

J) Ingurumen-baimen bateratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 31. artikuluari jarraituz (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), eta aipatutako legearen 32. artikuluan jasotako zigorrak ezartzea ekar dezake».

«Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratuaren berrikuspena ofizioz egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, finkatutako emisioaren muga-balioak berrikustea edo beste batzuk ezartzea komeni bada.

b) Emisioak nabarmen murriztu daitezkeenean, teknika erabilgarri onenetan egindako aldaketa handien ondorioz gehiegizko kosturik izan gabe.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela-eta beste teknika batzuk erabili behar badira.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian xedatutakoaren arabera, uste badu ingurumen-baimen bateratua berrikustea edo aldatzea justifikatzen duten inguruabarrak daudela, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isuriei dagokienez. Horrelakoetan, arroko erakundeak, txosten lotesle baten bidez, ingurumen-baimen bateratua emateko organo eskudunera joko du, hark berrikuste-prozesua has dezan gehienez ere hogei eguneko epean.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten denean, bereziki inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bateginaren 26. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera analisi eginda, aldatu egin behar dela ondorioztatzen bada.

Ingurumen-baimen bateratua berrikustek ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan».

## II. ERANSKINA

## DEYDESA 2000 SL ENPRESAK ENTZUNALDI-IZAPIDEAN EGINDAKO ALEGAZIOEN AZTERKETA

2023ko azaroaren 7an, Deydesa 2000 SLk entzunaldi-izapidean bidali zioten ebazpen-proposamenaren zirriborroari buruzko alegazio-idazkia aurkeztu zion ingurumen-organoari. Dokumentuan honako gai hauek jasotzen dira:

1.– Ebazpenaren C puntuari dagokionez, ez du jasotzen entitateak ingurumen-arriskuen analisia (IAA) egin duenik MARMA 01112 espediente-zenbakiarekin, 2020-03-30ean entregatua (2020RTE00169863 erregistro-idazpena); eta Administrazioak baloratu gabe dauka oraindik.

Erantzuna: lege-eskakizun orokorra da.

2.– D.2.6 puntuei dagokionez, ez du jasotzen entitateak dagoeneko aurkeztu duenik IPPC instalazioetarako lurzoru kutsatuei eta lurpeko urei buruzko araudian jasotzen diren eskakizunen dokumentuategina (lurzoruen dokumentu bakarra), 2022-09-12an aurkeztua (2022RTE00861750 erregistro-idazpena), merkataritza-sozietatearen urte horretako ingurumena zaintzeko programaren 143. prozeduraren barruan; eta Administrazioak baloratu gabe dauka oraindik.

Erantzuna: lege-eskakizun orokorra da.

3.– D.1.2. Adierazten denez, sarrerako kontrola Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena izango da, baina ez da inolako mekanismorik ezarri kontratu horiek onartzeko, eta sektoreko legeriak ez dio Administrazioak onartu egin behar dituenik; gainera, ez daude jasota ebazpenaren E apartatuari jarraikiz bidali beharreko dokumentuetan. Onarpenaren aipamen hori kentzea eskatzen da.

Erantzuna: Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 35. artikuluan jasotako eskakizunari erantzuten dio.

4.– D.2.3. Saneamendu-sarera isuriak egiteko baldintzak; izan ere, zenbait desberdintasun daude 2022ko abuztuaren 17ko Ebazpenarekin alderatuta.

D.2.3.2.– Isurketen muga-balioak.

– Enpresak argudio tekniko bat bidali dio industrialdeko uren kudeatzaileari; izan ere, 13. orrialdean agertzen diren parametro batzuk eta horiei dagozkien gehieneko balioak ezin dira bete gaur egun instalatuta dauden arazketa-baliabideekin, ezta enpresarentzat teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren bitartekoekin ere. Horrenbestez, taula hori kentzea eskatzen da, gaur egun indarrean dagoena jartzeko, enpresak Araba Garapen Agentziarekin alegazioak argitu arte.

Erantzuna: Araba Garapen Agentziak isurketen muga-balioak aldatu zituen 2023ko irailaren 14an.

– Industrialdeko banaketa-sareari buruzko aipamenak jasotzen dira (D.2.3.3 puntuan ere bai). Enpresaren arabera, instalazioa ez zen baldintza horrekin eraiki, eta lurzatian ez dago ur garbiak husteko sarerik, zolatara bideratzen direlako. Gainera, eta instalazioaren jarduera kontuan hartuta, ur horiek tratatu behar izatea gerta liteke, eta, beraz, ezin izango litzateke bermatu eskakizun hori betetzen dela.

Erantzuna: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31.2 artikulua arabera, «Ingurumen-baimen bateratuaren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko emisioen baimenak, eta dagozkien mugako balioak ezarriko dira, eskura dauden teknologia onenetan oinarrituta».

– Ekaitz-tangari buruzko betebeharrak bat aipatzen da. Enpresak dio gaur egun Deydesa eta Zabor arteko urak biltzeko proiektu batean murgilduta dagoela, araztegi bateratu berri bat instalatuta eta ekaitz-tanga berri bat eginda. Horrenbestez, jakinarazten du betebeharrak beteko dituela, Araba Garapen Agentziak zehaztu ondoren eta proiektua gauzatu ondoren.

Erantzuna: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31.2 artikulua araberak, «Ingurumen-baimen bateratuaren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko emisioen baimenak, eta dagozkien mugako balioak ezarriko dira, eskura dauden teknologia onenetan oinarrituta».

– Puntu batean honako hau adierazten da: «araztegitik ibilgu publikora doan efluenteak isurtzeko baimena betetzen ez badu...». Enpresaren iritziz, puntu horrek urratu egiten du Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazio-eremua, enpresari hirugarrenen betebeharrak ezartzen diolako. Paragrafo osoa kentzea eskatzen da.

Erantzuna: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31.2 artikulua araberak, «Ingurumen-baimen bateratuaren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko emisioen baimenak, eta dagozkien mugako balioak ezarriko dira, eskura dauden teknologia onenetan oinarrituta».

#### 5.– D.2.4.2. Hondakin arriskugabeak.

Taulan, araztegitik lohien EHZk okerra izaten jarraitzen du. EHZ zuzena 2017ko uztailaren 26ko Ebazpenaren jasotakoa da, hau da, 19 08 14 zenbakikoa. 18 09 04 ez da existitzen. Zuzentzeko eskatzen da.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

#### 6.– E.1. Atmosferara egindako emisioen kontrola.

a) Aurreko bertsioekin alderatuta, emisio lausoak kontrolatzeko apartatu bat gehitu da, 14. TEOari (BREF) erreferentzia eginez. Hautsezko materialak biltegitzeari buruzko paragrafoari dagokionez, enpresak zehaztu nahi du, aurreko beste prozedura batzuetan adierazi bezala, mota horretako materialak beti biltegitzen direla perimetroko hesietatik ahalik eta urrunen, inguruko horma gisa jardungo duten beste biltegitzere batzuek babestuta. Sistematika hori puntu horretan jasotzea eskatzen da, egungo idazkera ordezkatzuz. Zehaztu behar da hesien azpitik biltegitzereko sistematika hori hautsezko hondakinei bakarrik aplikatu dakiekeela, eta ez material guztiei.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

b) Zinta karenatuei dagokienez, enpresak zehaztu nahi du denak daudela karenatuta, elikadura-materialaren granulometriagatik hala behar ez dutenak salbu, horiek ezin dutelako emisio lausorik sortu.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

c) Makina bidezko baldekatzei dagokienez, alegatu nahi da ez direla beharrezkoak kanoiekin eta aspertsoreekin ureztatzen bada, enpresaren emisio lausoak murrizteko protokoloan jasotzen den bezala. Hori ezabatzea eskatzen da.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

d) Eragiketak: hautsezko materiala baldintza klimatologiko txarretan manipulatzeko eragiketei dagokionez, «jasak» hitza gehitu nahi da euriren ondoren; izan ere, euria ez da kaltegarria puntuan planteatzen den emisio lausoak murrizteko, aldekoak baizik.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

7.– E.1. Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Ebazpenean bi E.1 puntu daude ingurumen-alderdi desberdinetarako. Zuzentzeko eskatzen da.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

b) Puntu horri erantsitako taulari dagokionez, lehenengo orrian «AGA» jasotzen da neurketak kontrolatzeko maiztasun gisa. Enpresaren arabera, puntu hori ez dator bat Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.28 artikuluekin, eta, beraz, iraupen jakin baterako ezarri behar dira emisioaren muga-balioak. Kontrol horietarako iraupen jakin bat ezartzea eskatzen da. «Araba Garapen Agentziak beharrezkotzat jotzen duen maiztasunarekin» esaldia, 29. orrialdean agertzen dena, ez dator bat aipatutako artikuluekin.

Erantzuna: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31.2 artikuluen arabera, «Ingurumen-baimen bateratuaren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko emisioen baimenak, eta dagozkien mugako balioak ezarriko dira, eskura dauden teknologia onenetan oinarrituta».

c) E.1 puntuan («Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea») adierazitako parametroak, D.2.3.2 puntuko bigarren taulari dagozkionak, hileru neurtzeko betebeharra ezabatzea. Emisioen muga-balioak, eta taula; izan ere, balio horiek azken hartzaileak bete behar ditu, ez enpresak, eta, beraz, Araba Garapen Agentziak parametro horiek egokitu behar ditu goiko taulan, bere arazketa-bitartekoen arabera.

Erantzuna: alegazioa onartu da eta ebazpenaren edukia aldatu da.

d) Administrazioak legezko oinarria ezabatzea edo justifikatzea, hirugarrenek agintzen eta egiten dituzten analisiak merkataritza-sozietateari ordaintzeko. Enpresak hainbat prozeduratan eskatu dio Araba Garapen Agentziari ondorio horiek ahalbidetuko dituen araudia justifikatzeko, baina momentuz ez du erantzun egokirik jaso Araba Garapen Agentziaren aldetik. Puntu hori ezabatzeko eskatu da.

Erantzuna: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31.2 artikuluen arabera, «Ingurumen-baimen bateratuaren bitartez, egintza bakarrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aurretiaz emandako prozedura administratibo bakarrean bateratuko dira hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko baimenak, kolektorera, jabari publiko hidraulikora eta itsasoko eta lehorreko jabari publikora eginiko isurien baimenak eta atmosferara eginiko emisioen baimenak, eta dagozkien mugako balioak ezarriko dira, eskura dauden teknologia onenetan oinarrituta».